“El adjudicatario deberá cumplir los criterios lingüísticos establecidos para cada tipo de contratación en el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento que esté en vigor en ese momento.”

“El adjudicatario deberá emplear en la ejecución de la obra o en la prestación del servicio al personal necesario para garantizar que tanto el personal de la Dirección de obra como quienes en la plantilla puedan tener trato directo con la ciudadanía o con la Administración se puedan comunicar en euskara”.

“El adjudicatario deberá garantizar que todas las comunicaciones entre la empresa, la Administración y/o la ciudadanía, así como los informes, estudios, proyectos etc. sean presentados en euskera o en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, salvo en los casos excepcionales en que la parte contratante lo considere oportuno.”

IFK/CFR P2007/400A / TEE/REL 01200697
600ln 2003-04

	Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzordeak Aprobado por la Junta de Goberno Local.	
2013 JUN. 21	
Batzordeko idazkaria, El/la Secretario/a de la Junta.	
	



Donostiako Udaleko kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideak

Lehenengoa.- Xedea:

Jarraibide hauek xedetzat dute Donostiako Udaleko kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzea, gastu publikoaren gauzatzea agintzen duten eraginkortasun eta eragingarritasun printzipioentzako eta kontratazio publikoarentzako kalterik gabe, bereziki, publizitate, gardentasun, konkurrentzia, berdintasun eta ez-diskriminazio printzipio orokorrak.

Bigarrena.- Aplikazio eremua:

Jarraibideak Donostiako Udaleko kontratazio organo guztientzat dira. Era berean, Udaleko sektore publikoko gainerako erakunde administrazioaren eta entitateen kontratazio organoei bidaliko zaie, haiek kontuan har dezaten.

Kontratazio organoek honako jarraibide hauetan xedatutakoa bete beharko dute kontratuen administrazio klausula bereziak eta baldintza teknikoaren pleguak lantzeko orduan. Kontratu txikien kasuan, honako jarraibide honetan ezarritako irizpideak kontuan hartuko dira eskaintzak eskatzeko orduan eta sartu egingo dira, egoki denean, dagozkien kontratu agirietan.

Hirugarrena.- Gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun klausulak sartzea:

Klausulak kontratazio prozeduraren honako fase hauetan sartu ahal izango dira:

1. Kontratua prestatzeko fasea:

1.1.- Merkatuko erreserba:

Donostiako Udaleko sailek urtero hainbat kontratu erreserbatu beharko dizkiote erregistratuta dauden laneratze enpresei, ezgaitasunak dituzten pertsonen enplegurako zentro bereziei, edo kontratu horiek enplegu babestuen programen barruan gauzatzeko:

a) Enplegurako Zentro Bereziak edo programen esparruan jarduteko: zenbateko mugarik gabe eta zeinahi esleipen prozedurarako erreserbatu ahal izango da enplegu babestua, langileen ehuneko 70, gutxienez, ezgaitasunen bat duten pertsonak direnean eta beren ezgaitasun motaren edo larritasunaren ondorioz baldintza normalean jarduera profesionalik ezin egin dutenean; edozein zenbatekoko kontratuei aplikatu dakioko.

b) Laneratze enpresak: erreserbatu ahal izango da kontratu txikien kasuan edo zenbatekoa dela-eta publizitaterik gabe negoziatutako prozeduretan; eskaintzen eskaria interesgarria den enpresa motara mugatuko da.

Urteko zenbateko mugatua edo aipatu erreserbako kontratuen aurrekontu osoari dagokion ehunekoa urtero zehaztuko du Udal honetako Gobernu Batzarrak, osoki eta sektoreka ere.

Erreserbaren onuradun diren enpresek aplikagarria den legerian ezarritako baldintzak bete behar dituzte, eta haien xedeak edo jarduerak lotura zuena eduki beharko du kontratuaren xedearekin, haien arau arautzaileen, estatutuen edo sortze arauen arabera.

Aipatutako erreserba beteaz kontratatzen diren entitateek abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan aipatzen diren Enplegurako Zentro Berezien Erregistroan izena emanda egon behar dute, edo azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak araututako Laneratzeko Enpresen Erregistroan, eta, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasun Legea bete beharko dute.

Lizitazio iragarkian erreserba hori gaitzen duen 3/2011 ED legegilearen Bosgarren Xedapen Gehigarria aipatu beharko da.

1.2. Kontratuaren xedearen definizioa

Kontratuaren xedea definitzeko unean, kontratazio organoek kontuan hartu beharko dute kontratatu behar dituzten produktuek eta zerbitzuek ingurumenaren eta etikaren ikuspegitik duten balioa, eta baita genero ikuspegia edo hizkuntza baldintzak ere kontratuaren xede den ezaugarri tekniko bat denean edo, bestela, kontratuaren xedearen izaerak eta balio sozialak horretarako aukera ematen duenean.

Horrela, kontratuaren xedearen definizioan kontratazio arduratsuen ezaugarriak txertatzen direnean, irizpide horiek kontratuaren balorazio fasean edo kontratua gauzatzeko baldintzetan sartzea balioduntzen da.

Kontratazio organoek Europar Erkidegoko zuzenbidearen arau eta printzipio orokorrak bete beharko dituzte, bereziki, salgaien eta zerbitzuen zirkulazio askea arautzen dituztenak.

1.3. Baldintza teknikoaren definizioa

Kontratazio organoek erosketaren edo prestazioaren xedea zehatzago definitzen duten ezaugarri teknikoak inposatu ahal dituzte, betiere Europar Erkidegoko zuzenbidearen arauak eta printzipio orokorrak betetzen badituzte, bereziki, salgaien eta zerbitzuen zirkulazio askea arautzen dituztenak.

Baldintza teknikoak definitzeko dira, ahal den neurrian, kontuan hartuz irisgarritasun unibertsalaren eta denontzako diseinuaren irizpideak, abenduaren 2ko 51/2003 legean definitzen diren ezgaitasunak dituzten pertsonen aukera berdintasun, bazterkeriarik eza eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa, eta betiere kontratuaren xedeak ingurumenari eragiten badio edo eragin badiezaioke, iraunkortasun eta ingurumen babeserako irizpideak aplikatuz, kutsaduraren prebentzio eta kontrol



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Kontratazio eta Erosketen Atala
Sección de Contratación y Compras

Ijentea, 1 - Tel. 943481031 - 943481029 - 943481000 - Faxa 943481092 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

integraturako uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan araututako
definizioekin eta printzipioekin bat eginez.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
600ln 2003-04

2. Lizitatzailleak hautatzeko fasea:

2.1. Kontratatzeko debekuak.

Kontratatzeko debekuak 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan (zehazki, esku artean darabilgun gaiari dagokionez, C) letran aurreikusitakoak) aurreikusitakoak dira, eta administrazio klausula bereziek eta baldintza teknikoen pleguek ezin dituzte kausa berriak edo haietatik bestelakoak direnak sartu, lege erreserba baitago.

2.2. Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta teknikoa

Sektore publikoarekin lizitatu nahi duten enpresek kontratazio organoak mugatzen dituen baldintza minimo batzuk bete beharko dituzte honako arlo hauei dagokienez: kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen profesional edo teknikoa. Irizpide horiek kontratuaren iragarkian adierazi eta pleguan zehaztuko dira, eta kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute eta harekiko proportzionalak izan. Baldintza horiek egiaztatzeak mugatuko du enpresa lizitaziora onartzen den edo ez.

Kontratuak gaitasun zehatzak eskatzen baditu gai horietan, esperientzia zehatz bat eskatu beharko da gaitasun eta ezagutza teknikoen irizpide gisa, lizitatzailleen kaudimena frogatu ahal izateko, baina kaudimen jakin baten eskariak ez du diskriminatzailea izan behar.

Kaudimena egiaztatzeko, hala ere, lizitatzailleek beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu daitezke, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere frogatzen bada kontratua gauzatzeko bitarteko horiek benetan dituztela (3/2011 ED Leg. 63. art.).

2.3.- Eskaintzen izaera anormala edo neurritz kanpoko

Esleipena egiteko balorazio irizpide bat baino gehiago kontuan hartu behar bada eta pleguetan parametro objektiboak sartzea hautatzen bada eskaintzen izaera anormala edo neurritz kanpoko hautemateko, proposamenak ezin direla bete hautemateko parametro objektibo gisa sartuko da lanbide kategoria bakoitzeko gutxienezko soldata kostuak baino apalagoak diren prezio bat ezartzea, aplikagarria den hitzarmen kolektiboaren edo pleguetan finkatutako ordainsariaren arabera.

3. Kontratua esleitzeko fasea

3.1. Esleitzeko irizpideak.

Kontratazio organoek kontratazio arduratsuari buruzko irizpideak sartu ahal izango dituzte esleipen baremoan, betiere kontratuaren xedearekin lotuta badaude, eskaintzaren hautaketarako askatasun baldintzarik gabea ematen ez badute, pleguan

berariaz aipatzen badira eta Europar Erkidegoaren zuzenbide printzipio guztiak errespetatzen badituzte, bereziki, ez-diskriminazioaren printzipioa.

Kontratuaren helburu diren zerbitzuen onuradunak edo erabiltzaileak premia bereziak dituzten pertsonak edo herritar kategoriak direnean, administrazio klausulen pleguei premia horien asebetetzeari loturiko balorazio irizpideak erantsi beharko zaizkie, baldin eta premia horietara egokitu beharra ez bada derrigorrez eskatzen aplikatu daitekeen legedian edo baldintza teknikoan agirian.

Gizarte alorreko irizpideen balorazioa haztatu behar da, eta kontratuaren zerbitzuaren izaerari eta helburuari dagokionez proportzionala izan behar du, kontratuaren premiei eta interes publikoari erantzunez. Gai horrek erabakitzen du espedientearen justifikazioan eta kontratuaren egokitasunean gizarte erreferentziak sartzeak duen egokitasuna.

Pleguek esleipen irizpideak definitzeko orduan kontuan hartu diren gizarte, etika, ingurumen, lan, hizkuntz edo/eta berdintasun ezaugarriei funtsezko izaera duten kontratuzko obligazioa izaera egotziko diete, eta kontratazio organoak, ezaugarri horietan eragina duten zerbitzuaren eskaintza betetzen ez denean edo oker betetzen denean, honako hauen artean hautatu ahal izango du:


- Kontratua ez betetzeagatik indargabetzea, RDL 3/2001eko 223 f) artikulua arabera.
- Kontratuarekin aurrera jarraitzea, baina adjudikazioaren aurrekontuaren %10ari dagokion zigorren ezarrita, RDL 3/2011 212. artikulua arabera.

3.2. Lehentasun irizpideak

Esleipenean lehentasuna aplikatuko da, baldin eta proposizio horiek onuragarrienaren pareko badira baldintzei dagokionez, adjudikaziorako oinarritzko balio duten irizpideen ikuspegitik. Horretarako, pleguetan adieraziko da 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 4. xedapen gehigarriarekin bat datorren lehentasun irizpide hori.

Laugarren Xedapen Gehigarriak ezartzen du kontratazio organoek kontratuen administrazio klausula berezien pleguetan adierazi ahal izango dituztela, betiere proposamen horiek beren baldintzetan esleipenerako oinarritzat balio duten irizpideen ikuspegietatik abantailatsuenak berdintzen badituzte, honako hauen alde:

- Enpresa publikoak edo pribatuak, beren lan taldean % 2tik gorako ezgaitasuna duten langileen kopurua badute.
- Abenduaren 13ko 44/2007 Legeak araututako laneratze enpresak.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeak, nortasun juridikoa dutenak, betiere haien xedeak edo jarduerak kontratuaren xedearekin harreman zuzena



badu, haien estatutu edo fundaziozko arauetatik eratorzen denaren arabera, eta egoki den erregistro ofizialen izena emanda badaude.

- Merkataritza Bidezkoa egiten duten antolakuntzak, kontratuak xedetzat badute Merkataritza Bidezkoaren aukera duten produktuak.

4. Kontratua gauzatzeko fasea

Kontratuaren baldintza pleguek gauzatzeko baldintza bereziak hartuko dituzte kontuan, besteak beste:

- gizarte alorrekoak, eta bereziki lan merkaturan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzera bideratuak.
- genero berdintasunaren alorrekoak, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko helburua dutenak.
- ingurumenaren alorrekoak, ingurumen babesari eta iraunkortasunari zuzenduak, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan araututako definizioekin eta printzipioekin bat eginez, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzkoak.
- etikaren alorrekoak, lan baldintza duinei, gutxieneko soldatei, langileen eskubideei, haurren lanaren kontrako borrokaren eta abarren alorreko nazioarteko hitzarmenak eta estandarrak betetzeari buruzko irizpideak kontuan hartzen dituzten lanak, hornidurak edo zerbitzuak kontratatzeari buruz, baita irizpide edo estandar zorrotzagoen alde apustu egiten duten produktuen erosketa ere, merkataritza bidekoarenak adibidez (bereziki aplikatzen direna elikagaien eta ehungintza alorreko produktuetan).
- Hizkuntzarenak, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta administrazioko euskararen erabileraren normalizazioaren inguruan indarrean dauden Donostiako Udalak hartutako erabakiak betetzeko, euskararen erabileraren normalkuntzarako.
- lan alorrekoak, lan arloko prebentzioa eta osasuna bermatzeko, lan baldintza duinak errespetatu daitezkeen, baita azpikontratazio kasuan ere, gutxienez lurralde esparru honi dagozkion hitzarmen kolektiboetan ezarritakoak eta arlo honetan dauden betebeharrak guztiak betetzeko eta une oro Administrazioaren ikuskaritza errazteko konpromisoa eta Udal honetan ordezkariak duten sindikatuena edo aplikaziozkoa den hitzarmen kolektiboan erantzukizuna dutenena, gai hauei dagozkien egiaztapen mota orotan.

Gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun lurreko baldintza berezi guztiek lizitazio iragarkian eta plegetan agertu beharko dute, eta kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute eta ez dira diskriminatzaileak izango.

Kontratazio eta Erosketen Atala
Sección de Contratación y Compras

Ijentea, 1 - Tel. 943481031 - 943481029 - 943481000 - Faxa 943481092 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Gizarte, etika, ingurumen eta berdintasunaren alorreko baldintzak izaera funtsezko kontratuzko betekizun gisa definituko dira pleguetan, eta kontratazio organoak hura beteko ez balitz, erabaki dezake:

- Kontratua ez betetzeagatik indargabetzea, RDL 3/2001eko 223 f) artikulua arabera.
- Kontratuarekin aurrera jarraitzea, baina adjudikazioaren aurrekontuaren %10ari dagokion zigorren ezarrita, RDL 3/2011 212. artikulua arabera. RDL 3/ 2001 1.


Laugarrena.- Ebaluazioa eta jarraipena:

Kontratazio organoen kontrol ahalmenen kaltetan izan gabe, Alkatetzaren Ebazpenek Batzorde tekniko bat sortuko da Udal honek kontratazioan gizarte klausulak ezartzen direla jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.

Batzorde honek Udaletxean onartzen diren administrazio klausula berezien eta baldintza teknikoaren pleguak berrikusteko mekanismoak ezarriko ditu, egokiak diren gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartu direla kontrolatzeko. Era berean, bide juridikoak bilatuko ditu baldintza horiek ezartzeko, egindako kontratuak ebaluatuko ditu, jasotako kontsultak, egiturazko hobekuntzen proposamenak landuko ditu, antolakuntza eta ekonomia mailakoak, besteak beste, mota honetako irizpideak sartzen direnean udal administrazio kontratazioan eta aldi behin gobernu organoei informazioa emango die jarraibide hauen ezarpenari buruz.

Horretarako, kontsulta buletin moduko zerbitzu bat eskaintzen utziko duen tresna informatiko bat izango du eskura; hartan, gaiari buruzko kontsultak, txostenak, araudiak, etab. artxibatuko dira, baita pleguen erregistro zerbitzu bat ere.

Donostian, 2013ko maiatzaren 25ean.





DONOSTIAKO UDALEKO KONTRATUETAN GIZARTE, INGURUMEN, ETIKA, LAN, HIZKUNTZA ETA BERDINTASUN KLAUSULAK SARTZEKO GIDA

Ondoren, adibide gisa, kontratuetan sartu beharreko klausula ereduak zerrenda egiten da, prozeduran dauden faseak kontuan hartuz:

I. KONTRATUAREN XEDEAREN DEFINIZIOA

I.1 Ingurumen irizpideak:

- "Kontratu honen xedea da udal eraikinetan garbiketa zerbitzua ematea, ingurumenarekiko errespetuz jokatzuz".
- "Kontratu honen xedea da energetikoki eraginkorra den eraikin bat eraikitzeke lanak egitea".
- "Kontratu honen xedea da CO2 eta partikula emisio apalak dituzten ibilgailuak / paper birziklatua hornitzea".

I.2 Berdintasun irizpideak:

- "Kontratu honen xedea da genero ikuspegia duen hiri mugikortasunerako plan baten diseinua kontratatzea".
- "Kontratu honen xedea da XXX zerbitzua ematea, enpresa barruan berdintasun politikak hartzen direla bultzatuz".

I.3. Gizarte eta laneratze eta ezgaitasun irizpideak

- "Kontratu honen xedea da udal eraikinen garbiketa zerbitzua ematea, lan merkatuan egoera ahulean dauden pertsonak edo lan horiek egiteko ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatuz".
- "Kontratu honen xedea da obrak gauzatzea, lan merkatuan egoera ahulean dauden pertsonak edo ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatuz".

I.4. Enpleguaren kalitatea

- "Kontratu honen xedea da udal eraikinetan garbiketa zerbitzua ematea, lan hori egiteko atxikita dauden langileentzat lan arloko hobekuntzak sustatuz".
- "Kontratu honen xedea da obrak gauzatzea, lan hori egiteko atxikita dauden langileentzat lan arloko hobekuntzak sustatuz".

I.5 Merkataritza Bidezkoa

- "Kontratu honen xedea da nekazaritza ekologikotik datozen elikagaiak hornitzea".

I.6. Hizkuntza irizpideak

- "Kontratu honen helburua da XXX obrak gauzatzea eta, Udalean indarrean dauden hizkuntza irizpideak betez beti, euskeraren erabilera sustatzea.

II. ESLEIPEN IRIZPIDEAK

I.1 Ingurumen irizpideak:

X puntu emango zaizkio ehun materialaren kontratua egitean zuntz naturalen ehuneko handiena erabiliko duela agintzen duen lizitatzailerari (% 90etik gora betiere), Europar Batasunaren mailan finkatutako estandarren arabera ekoitziak (CEE) araudietan 2092/91 zk, 2008ko abenduaren 31 arte eta 834/2007 zk, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera), Estatu Batuetan ezarriak (Nekazaritza Sailaren-USDAREN National Organic Program (NOP) delakoaren arabera) edo IFOAM antolakuntzak edo baliokideek nazioarte mailan ezarritakoak; edo/eta ekoizpen gerakinetatik, ehungintza eta oihalgintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondoko ehun hondakinetatik datozen zuntzetatik, eta gainerako lizitatzailerak puntuazio proportzionala lortuko dute".

"X puntu emango zaizkio kontratua gauzatzean % 100ean paper birziklatua erabiliko duela agintzen duen lizitatzailerari (\geq % 65 kontsumo ondoko zuntz edukia duena) eta batere klororik ez duena (TCF), eta I motako etiketa ekologikoren baten (aingeru urdina, zisne nordikoa, europar etiketa ekologikoa, etab.) ingurumen irizpideak bete beharko ditu."

II.2 Berdintasun irizpideak:

"X puntu emango zaizkio kontratua gauzatzean erantzukizun postuetan ahalik eta emakume kopuru handiena kontratatuko duela agintzen duen lizitatzailerari, eta gainerako lizitatzailerak puntuazio proportzionala eskuratuko dute".

"X punturekin baloratuko da kontratua gauzatzen duen lan taldeari familia eta lana bateratzeko neurri zehatzak aplikatuko dizkiola agintzen duen lizitatzailerari.

"X punturekin baloratuko da lizitatzailerak Berdintasun Plan zehatz baten proposamena sartzea haren eskaintzan, kontratua gauzatzean aplikatuko dena eta enplegurako dituen sarbide politikak zehaztuko dituen, baita, besteak beste, sailkapen profesionala, lan kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolakuntza ere".

II.3. Gizarte eta laneratze eta ezgaitasun irizpideak

"X puntu emango zaizkio kontratua gauzatzean langabe edo ezgaitasunak dituzten pertsona kopuru handiena kontratatuko duela agintzen duen lizitatuileari, eta gainerako lizitatuileek puntuazio proportzionala lortuko dute.

II.4. Enpleguaren kalitatea

"X puntura arte baloratuko dira aplikaziozkoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoa hobetzen duten lan eta lansari baldintzei buruz lizitatuileak kontratua gauzatuko duten langileei aplikatzea agintzen dituen proposamen zehatzak eta xehekatuak (azpikontratazio kasuan, aplikatuko direla bermatuko da). Era berean baloratu ahal izango dira kontratua gauzatuko duten langileentzat lizitatuileak proposatutako prestakuntza ekintzak".

"X puntu emango zaizkio kontratua gauzatuko duen lan taldean kontratu mugagabeko ahalik eta pertsona gehienak kontratatuko dituela agintzen duen lizitatuileari, eta gainerako lizitatuileek puntuazio proportzionala lortuko dute."

II.5 Merkataritza Bidezkoa

"X puntu emango zaizkio merkataritza bidezko produktuak kontratatzean ahalik eta gastu handiena egingo duela agintzen duen lizitatuileari, eta gainerako lizitatuileek puntuazio proportzionala lortuko dute."

II.6. Hizkuntza irizpideak

"X puntu emango zaizkio funtsezko hizkuntza betebeharrak betetzeaz gain, enpresa barruan euskeraren erabilera sustatzeko neurriak (Bai Euskarari zihurtagiria, Bikain, euskera lan hizkuntza izatea...) hartzeko konpromezua hartzen duen lehiatzaileari.

III. GAUZATZEKO BALDINTZAK

I.1 Ingurumen irizpideak:

X puntu emango zaizkio ehun materialaren kontratua egitean zuntz naturalen ehuneko handiena erabiliko duela agintzen duen lizitatuileari (% 90etik gora betiere), Europar Batasunaren mailan finkatutako estandarren arabera ekoitziak (CEE) araudietan 2092/91 zk, 2008ko abenduaren 31 arte eta 834/2007 zk, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera), Estatu Batuetan ezarriak (Nekazaritza Sailaren-USDAREN National Organic Program (NOP) delakoaren arabera) edo IFOAM antolakuntzak edo baliokideek nazioarte mailan ezarritakoak; edo/eta ekoizpen gerakinetatik, ehungintza eta oihalgintza industriaren ebakinetatik edo kontsumo ondoko ehun hondakinetatik datozen zuntzetatik".

"X puntu emango zaizkio kontratua gauzatzean % 100ean paper birziklatua erabiliko duela agintzen duen lizitatuileari (\geq % 65 kontsumo ondoko zuntz edukia duena) eta

batere klororik ez duena (TCF), eta I motako etiketa ekologikoren baten (aingeru urdina, zisne nordikoa, europar etiketa ekologikoa, etab.) ingurumen irizpideak bete beharko ditu."

III.2 Berdintasun irizpideak:

"Esleipendunak kontratua gauzatzean erantzukizun postu guztietatik % 40tik beherakoa ez den emakume ehuneko bat kontratatuko du erantzukizun postuetan.

"Esleipendunak familia eta lana bateratzeko neurri zehatzak onartu beharko ditu, kontratua gauzatzen duen lan taldeari aplikatu beharrekoak".

"Esleipendunak Berdintasun Plan zehatz bat onartu beharko du, kontratua gauzatzean aplikatuko dena eta enplegurako dituen sarbide politikak zehaztuko dituena, baita, besteak beste, sailkapen profesionala, lan kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolakuntza ere."

III.3. Gizarte eta laneratze eta ezgaitasun irizpideak

"Esleipendunak kontratua gauzatzeko kontratatu beharko dituen langileen % 40, gutxienez, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten edo ezgaitasunak dituzten pertsonak izango dira.

III.4. Lan eta enplegu kalitatearen irizpideak

"Esleipendunak kontratua gauzatzeko duen lan taldeari (azpikontratazio kasuan ere aplikatuko direla bermatuko du) Gipuzkoako hitzarmen kolektiboaren lan eta lansari baldintza onuragarrienak aplikatuko dizkio, nahiz eta lan taldeari aplikagarriak ez izan. Era berean, prestakuntza ekintzak antolatu beharko ditu kontratua gauzatzeko duen lan taldearentzat."

"Esleipendunak kontratua gauzatzeko kontratatu dituen langileen % 50ek, gutxienez, kontratu mugagabeak izango dituzte. Azpikontratazio kasuan, azpikontratutako enpresek gutxieneko ehuneko hori betetzen dutela bermatuko dute".

"Esleipendunak bete beharko du eta enpresa azpikontratistei betearazi beharko die indarrean dauden legezko, arauzko eta konbentziosko xedapen guztiak, eta lan arloan kontratu honetan finkatutakoak. Bereziki, lansari baldintzei, gizarte segurantzari, segurtasun eta laneko osasunari, azpikontratazioari eta enplegu kalitateari buruzkoak."

III.5 Merkataritza Bidezkoa

"Esleipendunak kontratua gauzatzean erabiliko dituen produktuen % 50, gutxienez, merkataritza bidezkoak izango dira.

III.6. Hizkuntza irizpideak



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Kontratazio eta Erosketen Atala
Sección de Contratación y Compras


Ijentea, 1 - Tel. 943481031 - 943481029 - 943481000 - Faxa 943481092 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

"Esleipendunak une horretan indarrean dagoen Donostiako Udalean Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Planean kontratazio mota bakoitzerako ezarritako hizkuntza jarraibideak bete beharko ditu."

"Esleipendunak obra gauzatzeko edo zerbitzua emateko beharrezkoak diren langileak hartuko ditu, Obra Zuzendaritzako langileek nahiz herritarrekin edo administrazioarekin harreman zuzena duten langileek euskeraz komunikatzeko gai izan daitezen bermatzeko."

"Esleipendunak enpresaren eta administrazioaren nahiz herritarren arteko komunikazio guztiak, hala nola txosten, ikerketa, egitasmo eta abar euskeraz edo EAEko bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, baldin eta kontratatuzaileak, salbuespenez, ez duen bestelakorik erabakitzen."

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6001n.2003-04

	Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica
Tokiko Gobernu Batzordeak Aprobado por la Junta de onartua. Gobierno Local.	
2013 EKA. 21	
Batzordeko idazkaria, El/La secretario/a de la Junta.	
